



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2001eko abenduaren 17a

126 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—2002 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak baztertutako osoko zuzenketak (2. or.)

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, ekoizpen prozesuetan amiantoa erabiltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Cetenasa enpresa publikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Oinarritzko Osasun Laguntzan “historia klinikoak” deiturikoak irekitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Babes ofizialeko etxebizitzaren moduluen prezioei buruzko zenbait konturi buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Goñerriko parke eolikoa abian ez jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, “Gestión Ambiental - Viveros y Repoblaciones” enpresak abeltzaintza-ustiategien gainean eginko azterketa lanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Abeltzaintza babestu eta hobetzeko programaren barreneko “Saneamendu kanpaina” kontusailaren betetze egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, “Nekazaritza ustiategien eraginkortasunaren hobekuntza” kontusailaren betetze egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Norbanakoen osasun txartel kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Sendagaiak eta beste farmazia produktu batzuk erosteko jarraitzen diren prozedurei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, AUDENASAKo lan-gatazkei eta Estatuaren jabetzako zatiaren balizko pribatizazioari buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak egina (20. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

2002 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua

OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO OSOKO ZUZENKETAK

Batasuna, Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua eta Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko taldeek eta foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak 2002 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari osoko zuzenketa bana aurkeztu zuten.

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko abenduaren 12an egindako Osoko Bilkuran, 2002 ekitaldi-

rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak baztertzea erabaki zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordera igortzen da.

Iruñean, 2001eko abenduaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

F saila:
GALDERAK

Ekoizpen prozesuetan amiantoa erabiltzeari buruzko galdera*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak ekoizpen prozesuetan amiantoa erabiltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 22ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak galdera egin du ekoizpen prozesuetan amiantoa erabiltzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

2000ko maiatzetik aurrera ez dago Nafarroan enpresa bat bera ere Laneko Segurtasun eta Higienearen Institutu Nazionaleko Amiantoarekin lan egiten duten enpresen erregistroan alta emanda dagoenik.

Nafarroako Gobernuak 1999-2002 aldirako onetsitako Lan Osasunari buruzko Planak ondoko eragiketa-helburuak jaso zituen bere lerro estrategikoetan:

“– Arauteriaren betetzea sustatu eta kontrolatzea, arau berariazkoak eginez arrisku faktoreak dauden kasuetan.

– Lantokian kartzinogenoen esposizio edo eragina jasan dutenei lanaren ondoko azterketak egitea eta hori egiten dela kontrolatzea.

– Prebentzio zerbitzuei esleitutako jarduerak egin daitezen sustatu eta kontrolatzea”.

Hori dela eta, beharrezkoa iruditu zitzaigun Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak Nafarroan amiantoaren eraginpean lan egindako langileen

erregistro bat egitea, besteak beste langile horien berriazko zainketa (lan egin bitartekoa eta lan egin ondokoa ere) kontrolatzeko eta geroko azterlan epidemiologikoak egiteko.

Halaber, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, bere arduradunen bitartez, konpromisoa hartu zuen Neumologia zerbitzuei lantokian amiantoarekin kontaktuan egondako pertsonei beharrezkoa zen zerbitzua emateko, jarduera arriskugarri horri utzi ondoren.

Nafarroako Gobernuak bere Lan Osasunari buruzko Planean adierazitako konpromiso horri jarraituz, 1999an Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak Foru Komunitatean Amiantoaren eraginpean lan egindako langileen osasuna zaintzeko programa abiarazi zuen. Programa horrek zenbait helburu, jarduera eta emaitza dauzka, ondoren azaltzen dugun bezala:

HELBURU OROKORRAK:

1. Amiantoaren eraginpean aritu diren langileen osasuna zaintzeko betebeharrak bete daitezen begiratzea.

2. Nafarroako Lan Osasunari buruzko Informazio Sistemaren baitan amiantoaren eraginpeko langileen kohorte sartzeari.

3. Azterlan epidemiologiko propioak egitea, beste erakunde batzuekin lankidetzan, amiantoak langileen osasunean eta komunitatean duten eragina baloratzea.

BERARIAZKO HELBURUAK:

1. Amiantoaren eraginpeko langileen erregistroaren aurreko datu iturriak berrikusi eta eguneratzea.

2. Amiantoaren eraginpean lan egindako pertsonak identifikatu eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko laguntza espezializatuko zerbitzuetara bidaltzea.

3. Amiantoa erabili zuten edo erabiltzen zuten enpresetako langile aktiboen osasunaren zainketa buruzko jarraipena egitea, emaitzak prebentzio zerbitzuari eskatuta.

4. Tumoreek Nafarroako amiantoaren eraginpeko langileen kohortea osatzen duten pertsonengan nolako intzidentzia duten aztertzea.

5. Nafarroako amiantoaren eraginpeko langileen kohorteko hildako pertsonen heriotzaren arrazoiak aztertzea.

6. Populazio orokorrean asbestosia eta pleurako mesotelioma gaitzaren diagnostikaturiko kasuen zainketa epidemiologikoa egiteko behar diren jarduketak egitea.

7. Emaitzak prestatu eta zabaltzea.

NAFARROAN AMIANTOA ERABILI DUTEN ENPRESEN IDENTIFIKAZIOA

Nafarroan, 25 enpresa izan dira produkziozikoetan amiantoa erabili dutenak. 1. taula.

1997ko otsailetik 2000ko maiatzera bitartean Nafarroan amiantoa erabiltzen zuten azken hiru enpresek baja eman zuten Amiantoarekin lan egiten duten enpresen erregistroan. Hiruak "Ibilgailuetarako piezen fabrikazioa" jardueran aritzen ziren.

Ekonomi Jardueren Sailkapen Nazionala (EJSN) - 93	Enpresen kopurua
241 Produktu kimiko oinarrizkoa fabrikatzea	1
274 Metalak ekoiztu eta eraldatzea	1
295 Berariazko erabilerarako makineria fabrikatzea	1
297 Etxeko aparatuen fabrikazioa	4
342 FMotordun ibilgailuetarako, atoiatarako eta erdi-atoiatarako karrozeriak fabrikatzea	1
343 Motordun ibilgailuetarako eta haien motorretarako atal, pieza eta akzesorioak fabrikatzea	5
410 Hura harrapatu, banatu eta araztu	3
502 Motordun ibilgailuak mantendu eta konpontzea	9
GUZTIRA	25

1. taula.

NAFARROAN AMIANTOAREN ARRISKUAREN ERAGINPEKO LANGILEEN ERREGISTROA SORTZEA ETA NAFARROAN AMIANTOAREN ERAGINPEAN LAN EGINDAKO PERTSONEN ERREGISTROA.

Bildutako datuak pertsonalak eta sentiberatasun handikoak direnez, "Lan arriskuen eraginpeko langileen" fitxategian sartzen dira; fitxategi hori Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak kudeatzen du eta izen horrekin alta emanda dago Datuak Babesteko Agentzian 1998ko azarotik.

Uneoro, haien isilekotasunari eusteko irizpide heretsiei jarraitu zaie.

Erregistro hori 1999-2002 urteetarako Nafarroako Estatistika Planeko urteko programetan ere jasota dago.

Nafarroan amiantoaren eraginpean lan egindakoen identifikazioa hiru etapatan egin zen:

1. Amiantoarekin lan egiten duten enpresen erregistroko datuak eta 1976tik aitzineko Lan Osasun eta Higienearen Kabineteko higie eta medikuntza unitateetan zeudenak berrikustea.

2. Amiantoa erabiltzen zuten enpresei amiantoaren eraginpean egon daitezkeen langileen eta haren eraginpean ez daudenen identifikazio datuak eskatzea; halaber, plantillako alta edo bajen berri eskatzea.

3. Amiantoaren eraginpeko langileen zerrenda eta norbanakoaren osasun-txartelaren erabiltzaileak uztartzea, identifikaziorako oinarrizko datuak osatzeko, eta pertsonen generoari, jaiotza datari eta osasun kokapenari buruzko atalak betetzeko.

Amiantoaren eraginpeko langileen erregistroa mantentzeko, "amiantoarekin lan egindako langile batek enpresako jarduerari uzteko jakinarazpen fitxa" bat diseinatu zuen. Enpresek fitxa hori igortzen dute haietan amiantoarekin lan egindako pertsona batek plantillan baja ematen duenean. Urtero enpresa guztiekin amiantoaren eraginpeko langileen fitxategian dagoen informazioa egiaztatzen da.

Erregistro informatizatu horretaz gainera, osasun-zaintzako jarraipena 1999tik egin denez, beharrezko jo genuen langile bakoitzari buruzko historia kliniko bat zabaltzea, langileei buruzko txosten mediko guztiak eta, kasua bada, ingurumen-determinazioko fitxak jasotzeko.

NAFARROAKO AMIANTOAREN ERAGINPEKO LANGILEEN KOHORTEAREN EZAUGARRIAK

Ondoko tauletan kohortearen aldagai interesgarri nagusien araberrako banaketa eman dugu.

Langileen ehuneko 58 ibilgailuetarako piezen fabrikazioan aritzen ziren; ehuneko 11, berriz, ibilgailuetarako karrozerien fabrikazioan aritzen zen; horiei gehituz gero ibilgailuen konponketan ari direnak % 6 direla, emaitza da amiantoaren eraginpeko langileen lautik hiru ibilgailuen fabrikazioan edo konponketan aritzen direla. Etxetresna elektrikoaren fabrikazioaren arloko kolektiboak pertsona horien ehuneko 9 enplegatzen zuen. 2. taula.

Amianto krosidolita aldagaia ibilgailuetarako karrozerien fabrikazioaren arloko enpresa bakar batean erabili zen; haren 106 pertsonen kohortea dago. Gainerakoetan, amianto krisolito aldagaia erabili da.

Pertsona horietatik ehuneko 24 amiantoaren eraginpean egon ahal izan da (443 pertsona); ehuneko 76, berriz, ez da amiantoaren eraginpean egon (1368). 2. taula.

Generoari begiratuta, ikusi ahal izan dugu haietako ehuneko 79 gizonezkoak eta % 21 emakumezkoak direla; emakumeen ehuneko 90 ibilgailuetarako piezen fabrikazioan aritu da. Haien ehuneko 9 amiantoaren eraginpean egon ahal izan den kategoriakoa da (35 langile). 3. taula.

Adin taldearen arabera banaketari begiratu, jende gehien biltzen duen adin tartea 25 eta 34 urte bitartekoa da; ondoren, 45 eta 54 urte bitartekoa eta 35 eta 44 urte bitartekoa datoz. Bai antze-man ahal izan dugu, ordea, aldaketarik gertatu dela amiantoaren eraginpeko kategorian; izan ere, amiantoaren eragina jasa ahal izan dutenen kolektiboko pertsonen ehuneko 44, 55 urte eta gehiagokoak dira; bitartean, amiantoaren eragina

ez dutenen artean, kolektibo horrek ehuneko 19 egiten du. 4. taula.

Horrek esan nahi du amiantoaren eraginik handienak lehen lan egindako adineko pertsonak jasan zituztela; amiantoa azken erabili zuten enpresetan, ordea, plantilla gaztea enplegatu zela, mugikortasun handiagorekin eta eragin maila gutxiagorekin. Azken egoera hori dela eta, amiantoaren eraginpeko emakumeen ehuneko 59, 25 eta 34 urte bitarteko taldekoa da.

5. taulan, eragin-denboraren eta -kategorien banaketa aurkeztu dugu. Pertsonen ehuneko 34k 10 urte baino gehiagoko kontaktuak izan ditu amiantorekin; ehuneko 24k, ordea, 3 urte baino gehiago eta 10 urte baino gutxiagokoa; pertsonen ehuneko 42, 3 urte edo gutxiagoko kontaktua izan du (horien erdiek hilabete eta 6 hil bitartekoa). Amiantoaren eraginpean egon ahal izan direnen kategoriakoen artean, ehuneko 45, 10 urte baino gehiagoko kontaktua izan dute.

Nafarroan amiantoaren eraginpean lan egindako langileen kohortearen banaketa, esposizio edo eragin mailaren arabera eta enpresaren jardueraren arabera.

NAFARROAN AMIANTOAREN ERAGINPEAN LAN EGINDAKO LANGILEEN KOHORTEAREN BANAKETA, ESPOSIZIO EDO ERAGIN MAILAREN ARABERA ETA ENPRESAREN JARDUERAREN ARABERA

Ekonomi Jardueren Sailkapen Nazionala (EJSN) - 93	Balizko espos., lan.	Balizko espos., ez-lan.	Balizko espos. ez, lan.	Balizko espos. ez, ez-lan.	Guztira
241 Produktu kimiko oinarrizkoa fabrikatzea	1	8	2	5	16
274 Metalak ekoiztu eta eraldatzea			12	7	19
295 Berariazko erabilerarako makineria fabrikatzea	7	3	60	57	127
297 Etxeko aparatuen fabrikazioa	55	74	9	20	158
342 Motordun ibilgailuetarako, atoiatarako eta erdi-atoiatarako karrozeriak fabrikatzea	18	36	52	97	203
343 Motordun ibilgailuetarako eta haien motorretarako atal, pieza eta akzesorioak fabrikatzea	70	127	301	545	1043
410 Hura harrapatu, banatu eta araztu	26	18	71	26	141
502 Motordun ibilgailuak mantendu eta konpontzea			31	73	104
Guztira	177	266	538	830	1811

2. taula

NAFARROAN AMIANTOAREN ERAGINPEAN LAN EGINDAKO LANGILEEN KOHORTEAREN BANAKETA, ESPOSIZIO EDO ERAGIN MAILAREN ARABERA ETA ENPRESAREN JARDUERAREN ARABERA

a) Ekonomi Jardueren Sailka pen Nazionala (EJSN) - 93	Balizko espos., lan.		Balizko espos., ez-lan.		Balizko espos. ez, lan.		Balizko espos. ez, ez-lan.		Guztira (a) (i)	
	Gizo- nezkoa	Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	Emaku- mezkoa
241 Produktu kimiko oinarrizkoa fabrikatzea	1		8		2		5		16	
274 Metalak ekoiztu eta eraldatzea					12		7		19	
295 Berariazko erabilerarako makineria fabrikatzea	7		3		60		56	1	126	1
297 Etxeko aparatuen fabrikazioa	45	10	54	20	8	1	16	4	123	35
342 Motordun ibilgailuetarako, atoiatarako eta erdi-atoiatarako karrozeriak fabrikatzea	18		35	1	52		97		202	1
343 Motordun ibilgailuetarako eta haien motorretarako atal, pieza eta akzesorioak fabrikatzea	68	2	125	2	158	143	355	190	706	337
410 Hura harrapatu, banatu eta araztu	26		18		71		26		141	0
502 Motordun ibilgailuak mantendu eta konpontzea					31		72	1	103	1
(b) GUZTIRA	165	12	243	23	394	144	634	196	1436	375

3. taula

NAFARROAN AMIANTOAREN ERAGINPEAN LAN EGINDAKO LANGILEEN KOHORTEAREN BANAKETA, ESPOSIZIO EDO ERAGIN MAILAREN, GENEROAREN ETA ADINAREN* ARABERA

ADINA	Balizko espos., lan.		Balizko espos., ez-lan.		Balizko espos. ez, lan.		Balizko espos. ez, ez-lan.		Guztira	
	Gizo- nezkoa	Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	Emaku- nezmezkoa	Gizo- nezkoa	Emaku- mezkoa
<25			5		11	19	25	11	41	30
25-34	13	1	16		58	93	157	128	244	222
35-44	21		27	1	107	26	129	36	284	63
45-54	73	10	36	15	142	5	76	11	327	41
55-64	58	1	57	2	67		79	3	261	6
65 edo gehiago			76	3	4	1	104	3	184	7
Hildakoak			23	2			55	2	78	4
Adin zehaztu gabea			3		5		9	2	17	2
GUZTIRA	165	12	243	23	394	144	634	196	1436	375

*Adina 00-12-31n kalkulatua

4. taula

NAFARROAN AMIANTOAREN ERAGINPEAN LAN EGINDAKO LANGILEEN KOHORTEAREN BANAKETA, ESPOSIZIO EDO ERAGIN MAILAREN ETA ERAGIN-DENBORAREN ARABERA

Espos. mota	Balizko espos., lan.	Balizko espos., ez-lan.	Balizko espos. ez, lan.	Balizko espos. ez, ez-lan.	GUZTIRA
1 eta 6 bitarte		10	51	303	364
7 eta 36 bitarte	34	61	124	153	372
37 eta 72 bitarte	29	38	92	76	235
73 eta 120 bitarte	31	39	87	38	195
>121	83	112	168	242	605
GUZTIRA	177	260	522	812	1771

5. taula

NAFARROAKO AMIANTOAREN ARRISKUAREN ERAGINPEKO LANGILEEN OSASUN ZAINKETA.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak egindako osasun azterketak.

Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak, 1999ko lehen hiruhilekoan, Laguntza Espezializatuko arduradunekin Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko neumologoek egin beharreko azterketen plangintza egin zuen. Haren arabera, 1999, 2000 eta 2001. urteetan zehar bizirik egon, Nafarroan bizi eta jada kontaktuko enpresan lan egiten ez zuten 966 pertsonentzako eskaintza osatu eginen zen.

Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak langileei buruz eman zituen zerrendak enpresek emandako informazioen arabera eguneratu ziren.

Aipatu bezala, zainketa medikoa "amiantoaren eraginpean egon ahal izan ziren" eta "amiantoaren eraginpean egon ez ziren" langileei aplikatuko zitzairen.

Hori baino lehen, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatiboei informazio eguneratua eman zitzairen –bai lege arloko informazioa, bai informazio klinikoa ere– amiantoari buruz eta jarraitu beharreko protokoloari buruz; halaber, Amiantoaren Osasun Zainketa Berariazkoaren zirriborroa eman zitzairen (gerora, Osasun Sistema Nazionaleko Lurralde arteko Kontseiluko osoko bilkuran onetsi zen, 1999ko urriaren 25ean).

Azterketak langilearen bizilekuaren arabera banatu ziren, eta zitzazioak laguntza espezializatuko zentroetatik egin ziren: Lizarrako García Orcoyen Ospitalea, Tuterako Reina Sofía Ospitalea eta Iruñeko Kanpoko Kontsulten Zentroa. 2000tik aurrera, Tuterako kasuak Iruñean baloratu ziren.

Zitaziora ez joatea erabakitzen zutenei ez zitzairen beste zitarik emanen, haiek eskatzen ez bazuten, behinik behin.

Informazio gutun baten erudia diseinatu zen, zitzazioarekin batea igortzeko, eskaintako zerbitzuaren aurre-neurri izaera eta borondatezko tasuna azpimarratuz; halaber, osasun azterketa egin ondorengo txostenen kopiak Nafarroako Lan Osasunaren Institutura igortzea erabaki zen, gero haiek kodetu eta informatizatzeke.

Halaber, ezarri zen osasun arloko asalduraren bat antzematen zen guztietan, Neumologia Zerbitzuetako edo kasuan kasuko zerbitzuetako Errutiazko Kontrolen Planean sartuko zela pertsona hori.

6. taulan kasuen banaketa ageri da, kontsulta uretaren eta osasun barrutiaren arabera antolatua.

Osasun barrutia	Zita emandakoak 1999an	Zita emandakoak 2000an	Zita emandakoak 2001an	Zita gabekoak 2002an	Zita emandakoak eta zita emandakoak
IRUÑA	307	149	204		660
LIZARRA	19	7	5		31
TUTERA	35	192	28		255
GUZTIRA	361	348	237	20	966

6 taula

1999an eta 2000n Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak programaturiko 709 osasun azterketatik, denak eskaini ziren, salbu 2000. urteko Tuterako guztiak (192 kasu): horiek 2001ean Iruñean egiten ari dira. Zita emandako 517 pertsona horietatik 358 (% 59) neumologiako kontsultara joan ziren. 2001ean, 429 zita eskaintzen ari dira. Bestalde, enpresek jakinarazitako bajak kontatuta, gaur egun 2002an lehenbiziko aldiz zitarik jasoko duten 20 pertsona daude.

Enpresek egindako osasun azterketek 715 pertsona hartzen dituzte (694 Nafarroan bizi dira eta 21 Nafarroatik kanpo); pertsona horiek aldizka kontaktuko enpresaren kargura kontrolatu beharrekoak dira, enpresa horietan lan ari baitira oraindik.

Enpresei eginiko azken errekerimenduko erantzunak jaso ziren, eta haietan lan ari ziren langileen eta lehen lan egindakoen azterketak bere gain hartuko zituen prebentzio zerbitzua adierazten zen; horren ondoren, 1999an eta 2000n amiantoaren eraginpean egon eta arrisku hori jasan zuten enpresa berean aktiboan ari ziren langileei eginiko azterketen emaitzak eskatu ziren.

25 enpresetatik hiru ezin izan ditugu aurkitu; guztiak ibilgailuak konpontzeko tailerrak ziren lehen, eta itxita daude egun, edo beste enpresa batzuetara pasatu dira: ezin izan dugu, beraz, haien langileei buruzko datuak lortu. Hala eta guztiz ere, pisu gutxiko datua da hori, enpresa txikiak zirelako eta jatorrizko datuetan kalitate ona erakusten zutelako.

Errekerimenduak baino lehen, 4 enpresak baik ez zuten urtero amiantoaren eraginpeko beren 249 langileen zainketa mediko berariazkoa egiten.

1999. urtearen bukaeran, 12 enpresek 331 pertsonen datuak igorri zituzten; 2000n, ordea, 13 enpresek 402 pertsonari buruzko txostenak igorri zituzten. 2000n zehar, bi enpresa berri igorri zituzten beren emaitzak; 1999an emaitzarik igorri ez zuen enpresa batek bere txostenak bukatzen ari da eta ondoren Nafarroako Lan Osasunaren Institutuari igorriko dizkio. Txosten medikorik igorri

ez duten zortzi enpresek 2001ean igortzea aurreikusten dute. Guztiak enpresa txikiak dira: 44 langile aktibo hartzen dituzte, guztira.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eta enpresek kontrataturiko zerbitzu medikoek ematen dituen txosten guztien kopia bat jasotzen du Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak.

Txostenean emaniko irizpen klinikoari dagokionez, honako sailkapena erabiltzen da:

– Normala

– Pleurako asaldurak: erradiologiako asaldura

– Butxaketazko arnas eritasun kronikoa (BGBK): butxaketa patroia

– Asbestosia

– Pleurako mesotelioma

– Peritoneoko mesotelioma

– Biriketako kartzinoma

– Zalantzazko kasua: ez da behin betiko diagnosis lortu

– Baloraziorik ez: probaren bat egiteko dago edo kasuan kasuko pertsona ez da probaren bat egitera joan

7. taulan 1999an eta 2000n txostenik egindako osasun azterketen emaitzak ikus daitezke. Lizarrako osasun barrutian jada 1999an zita emandako 10 pertsonen kasuak berriz baloratu ziren, 2000ko 7 pertsona berriak baloratzeaz gainera.

OSASUN ZAINKETA MEDIKO BERARIAZKOARI BURUZKO BALORAZIO KLINIKOA, NAFARROAN AMIANTOAREN ERAGINPEAN LAN EGINDAKO LANGILEEI BURUZKOA
(Osasunbidea-NOZen kasuan, emaitzak egindako lehen osasun azterketan aurkitutakoak dira)

DIAGNOSIA	O-NOZen kargura		Enpresaren kargura	
	1999	2000	1999	2000
Normala	200	76	297	369
Pleurako asaldurak	9	3	18	18
Butxaketazko arnas eritasun kronikoa (BGBK)	29	9	8	6
Asbestosia	7			
Pleurako mesotelioma	-	-	-	-
Peritoneoko mesotelioma	1			
Biriketako kartzinoma*	4	1		
Zalantzazko kasua				1
Baloraziorik ez	12	7	8	8
(i) TOTAL	262	96	331	402

*Behin betiko konfirmatzeko dagoen biriketako adenokartzinoma kasu bat.
7. taula

MINBIZIAK NAFARROAN AMIANTOAREN ERAGINPEKO LANGILEENGAN DUEN INTZIDENTZIARI BURUZKO AZTERLANA

Minbiziak amiantoaren eraginpean dauden pertsonengan duen intzidentzia ezagutzeko, behar ziren hartu-emanak eduki genituen Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuarekin, hain zuzen ere Nafarroako Minbiziaren Erregistroa, 1973tik han kudeatzen baita, eta Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak kudeatzen duen amiantoaren eraginpeko pertsonena elkarrekin lotu ahal izateko.

Azterlan horren bideragarritasuna ikusirik, datu base bat prestatu zen Nafarroan bizilekua duten kohorte horretako pertsonekin.

Egungo arauetan datu pertsonalak izan ditzaiketen fitxategi informatizatuen erabilerrako ezarritako irizpide guztiak betez, Nafarroan bizilekua dutenen 1740 erregistroak linkatu ziren.

Ondoko eremuak erabili ziren fitxategiak elkarrekin lotzeko:

- Izena
- Lehen deitura
- Bigarren deitura
- Jaioteguna
- Heriotzaren eguna
- Sexua
- Herria

1740 erregistroetatik 1690etan eremu guztiak bete ahal izan ditugu; 50etan herria baizik ez zen falta; 32tan jaioteguna ere falta zen eta 24tan bigarren deitura; badakigu, gainera, 74 hilik zeudela (72 kasutan bete ahal izan genuen heriotzaren eguna).

Minbiziari buruzko erregistroa 1996ra arte eguneraturik zegoenez, emaitzak 1973tik 1996ra bitartean minbiziak izandako intzidentzia islatzen zuen.

Amiantoaren eraginpean egon eta minbizi gaitza izandako 51 kasu antzeman dira (kartzinoma onberak in situ garatutakoen beste hiru kasu egon ziren, 1 maskurikoa eta 2 umetoki-lepokoa).

Hona minbiziaren kokapenaren arabera banaketa: biriketako eta koloneko 6na kasu; estomago, maskuri eta pankreaseko 5na kasu; laringeko 4 kasu; ondesteko 2 kasu, eta bestelako kokapeneko 18 kasu.

Egun, datu horiek aztertzen ari gara, haiek erregistroan agertzen diren esposizioko aldagai eta aldagai sozio-sanitarioekin erlazionatuz.

Amiantoaren eragina jasan duten pertsonengan patologia gaiztoaren agerpenak daukan ezaldi luzea dela eta, interesgarritzat jotzen da azterlana gutxienez ere bost urtez behin errepikatzea.

NAFARROAN AMIANTOAK SORTURIKO ARRISKUAREN ERAGINPEKO LANGILEEN HERIOTZEN ARRAZOIEI BURUZKO AZTERLANA

2000ko abenduaren 31n, hildako 82 langile zeuden erregistroan (77 Nafarroan bizi zirenak eta 5 Nafarroatik kanpo bizi zirenak). Heriotza horiek 1980 eta 2000 bitartean gertatu ziren.

Nafarroan bizi ziren 77en artean, 19 minbiziaren erregistroan jasota zeuden, baina ez dakigu heriotzaren arrazoa patologia gaitz hori izan ote zen.

Amiantoarekin aritutako pertsona horien heriotzaren arrazoa jakiteak daukan interes zientifikoa-rengatik, martxoan harremanetan jarri ginen Estatistikako Institutu Nazionalarekin, bi erakundeen arteko hitzarmen baten bitartez pertsona horien heriotzaren oinarriko arrazoiari buruzko datuak eman diezazkigun.

MESOTELIOMAREN DIAGNOSIA IZANDAKO KASUEN ZAINKETA AKTIBOA

Itxarotekoa denez datozen urteetan mesotelio-ma kasuen intzidentzia handitzea eta Nafarroan, bestek beste, 60ko hamarkadan etxeetan amiantoarekin irute eta harilketa lanak egin zirenez, garrantzitsua da kasuen zainketa aktiboa egitea Ospitaleko Altei buruzko Datuen Gutxiengo Oinarrikoen Multzoko Erregistroaren bitartez, amiantoaren eraginpean, lanean nahiz lanetik kanpo, egondakoen historiak berregiteko.

Une honetan, Nafarroan 2000 urtarrilaren 1etik ospitaleetan sarturiko kasuekin hasi da proiektua.

ERAIKIN ETA EGITURETATIK AMIANTOA KENTZEKO PROZESUA.

Enpresa batek amiantoa kentzen duenean, Nafarroako Lan Osasunaren Institutuari jakinarazten dio material hori kenduko duela. Aurten, Nafarroan industria batean aurkeztu zen amiantoa kentzeko proiektu bat.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko ekainaren 15ean

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Cetenasa enpresa publikoari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Cetenasa enpresa publikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 15eko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Cetenasa enpresa publikoari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Azken bost urteotan bost baja izan dira enpresa horretan. Hona:

Borondatezko bajak	21
Borondatezko eszedentziak	13
Kontratua bukatuta (praktikak)	9
Kontratua bukatuta (obrak)	4
Kargu-uztea	1
Iraizpena	1
Erretiroa	1

Borondatezko bajei buruz aipatzekoa da azken urteotan mugimendu handia izan dela teknikarien artean ongialdi ekonomikoaren eraginez. Dena den, nabarmentzekoa da eszedentzian dagoen jende kopurua.

Cetenasak bere egiten du ikerketa eta garapen arloko teknikari adituen harrobi izateko ardura. Ardura hori, azken muturreraino eramaten ez bada, ona da zentroarentzat, zeren teknikari horiek dira hain zuzen ere enpresen mintzakide Cetenasarekiko harremanetan, Cetenasaren babes teknologikoarekin garatu eta haien intereseko proiektuak definitzerakoan.

Cetenasako soldatetan bi kontzeptu jasotzen dira, bata finkoa eta bestea aldagarria, eta horien batura ez da inguruko soldatak baino kaskarra. Kontzeptuak eta mailak aldian-aldian berraz-

tertzen dira. Plantillakoen batez besteko adina 34 urtekoa da, eta antzintasuna, aldiz, bost urtekoa.

Urtero egiten da prestakuntza plana, eta erakunde kide guztiek parte hartzen dute horretan. Plan hori zentroaren ildo teknologikoarekin eta egiten ari diren edo egingen diren proiektu generikoekin bat etorritik definitzen da. Planean biltzen ez diren prestakuntza-ekintza guztiak eskaera zehatzen bidez planteatzen ahal dira beharrezkotzat jotzen baldin badira.

Nabarmendu beharra dago aipatu proiektu generiko horiek direla prestakuntza modu behine-netako bat –proiektu generiko dira Cetenasari inguruko enpresekiko alde teknologikoa izan ahal izatea ahalbidetuko dion teknologia lortzeko egiten direnak–. Cetenasako langileek euren denboraren puska handi bat ematen dute halako proiektuetan. Proiektu horiek administrazio publikoek (foru administrazioak zein nazionalak eta Europakoak) finantzatzen dituzte batez ere, horretarako dauden programen bitartez.

Hiru urtean behin prestakuntzari buruzko diagnostia egiten dute kanpoko adituek.

Inbertsio bat abiarazteko behar den batez besteko epea, logikoa den legez, inbertsioak berak ezartzen du, baina oro har eta langileen prestakuntzari esker epe hori motza izan ohi da, prestakuntza planak eta inbertsioak abiaraztea bat etortzen direlako. Ildo teknologiko berrietako inbertsioak proiektu generiko bati lotuta joan ohi dira.

Industria eta Teknologia, Lan, Merkataritza eta Turismo Departamentua justifikatu gabeko bikoizketa oro saihesten saiatzen da, eta halatan, departamentuak bilatzen du zentroak masa kritiko aski dagoen arloetan espezializatzea eta euren artean lankidetzan aritzea, zeinek bere arlo berriazkoa bultzatzen dezan. Ahalegin hori foru erkidegotik kanpo dauden zentroetara ere zabaltzen da, hori baita administrazio guztietan darabilten eredu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko ekainaren 19an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Javier Iribarren Fentanes

Oinarrizko Osasun Laguntzan “historia klinikoak” deiturikoak irekitzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Oinarrizko Osasun Laguntzan “historia klinikoak” deiturikoak irekitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko ekainaren 4ko 61. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du 2001eko maiatzaren 24an osasun etxeetako historia klinikoak buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Oinarrizko Osasun Laguntzako (OIL) profesionalek gaixoei laguntzeko beharrezkoa den informazioa biltzen duen oinarrizko erregistroa da historia klinikoa. Laguntzeak berarekin dakar hala sendatzeko ekintzak nola aurrea hartzekoak eta minusbaliatuei laguntzekoak burutzea.

Oinarrizko laguntzako kontsultategi eta zentro guztietan sistematizaturik dago historia klinikoaren abiarazte eta erabilera, eta egiten diren kontsulta guzti-guztietan erabiltzen du historia klinikoa oinarrizko osasun laguntzako profesional orok –mediku, pediatra, erizain, gizarte langile zein fisioterapeuta.

Historia klinikoa abiarazteko prozesua hainbat baldintzaren arabera da, eta zentro bakoitzak abiaraztea bermatzeko modu berezi bat izan dezake, baina argi dago osasun etxe eta kontsultategi guztiek bermatzen dutela prozesua.

Halatan, oinarrizko eskualde batean jaioberri bat baldin badago, erizainak zein pediatrik historia klinikoa abiaraziko dute, etxera eginiko bisitan ez bada pediatriko profesionalei eginiko lehen

bisitan. Pertsona batek osasun etxera egiten duen lehen bisita bada, lehenago laguntza eman zaion osasun etxeari eskatzen zaio pertsona horri buruzko historia, eta historiarik ez badu abiarazi egingen dute administrazio arlokoek eta bete egingen du osasun profesionalak.

Arlo klinikoa informatizaturik dago ondoko osasun etxeetan: Sanduzelai, Iturruma, Tafalla, Atarrabia, Ermitagaña, Mendillorri, Barañain (abiaraztea), Arrotxapea (abiaraztea), Txantrea (abiaraztea) eta Azpilagaña (abiaraztea).

Historia klinikoa nola betetzen den balioesteko, osasun etxe bakoitzeko zuzendaritzak eginiko autoebaluaziotik ateratako informazioa biltzen da. Informazio hori oinarrizko osasun laguntzako eki-poak kudeatzeko planean dago definituta, kalitateari buruzko atalean hain zuzen ere, bertan jasotzen baitira historia klinikoaren erabilerari buruzko kalitate adierazleak (eranskin gisa doa).

2000n eginiko autoebaluazioan, oinarrizko eskualde guztietako historia klinikoaren erabilerari buruzko kalitatearen gaineko datu zehatzak jaso dira, salbu eta oinarrizko laguntzako 4 ekipotakoak: II. Zabalgunea, Artaxoa, Erriberri eta Lodosa.

Aurkeztutako adierazleak direla-eta, jasota ageri denez, oinarrizko 36 eskualdetan % 90etik gorakoa izan da historia klinikoaren erabilera ohikoa. Historia klinikoa % 70etik gora bete da oinarrizko 42 eskualdetan. Arazoen zerrenda % 50etik gorakoa izan da oinarrizko 39 eskualdetan, eta historia klinikoak % 90etik gora behar bezala artxibatu dira oinarrizko 49 eskualdetan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko ekainaren 15ean

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Babes ofizialeko etxebizitzaren moduluen prezioei buruzko zenbait konturi buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak babes ofizialeko etxebizitzaren moduluen prezioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko ekainaren 4ko 61 Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/PNV Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak babes ofizialeko etxebizitzaren moduluen prezioei buruzko zenbait konturi buruzko galdera egin du. Hona Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen kontseilariaren erantzuna:

1. Oso ona, 2000 urtearekin alderatuta. Babes ofizialeko etxebizitzak kalifikatzeko eskaera kopuruak gora egin du nabarmen, eta etxegileen artean horiek egiteko interesa piztu da.

2. 2001eko lehen bost hilabeteetan babes ofizialeko 617 etxebizitzarako eta salneurri tasatuko 96 etxebizitzarako –guztira 713– eskatu da behin-behineko kalifikazioa.

3. Orain arte, 2001eko lehen bost hilabeteetan, babes ofizialeko 323 etxebizitza eta salneurri tasatuko 96 kalifikatu dira behin-behinekoz.

4. 2000ko lehen bost hilabeteetan babes ofizialeko 447 etxebizitzarako eta salneurri tasatuko etxebizitza baterako eskatu zen behin-behineko kalifikazioa, eta hortaz, egoera nabarmen hobetu da –2001ean hobekuntza finkatuko delakoan gaude–. Izan ere, igoera % 60koa izan da. Departamentuaren ustez, babes ofizialeko etxebizitzaren moduluen prezioak igotzeko Nafarroako Gobernuak egin zuen proposamenari emandako aldeko erantzuna da kalifikatzeko eskaeren igoera.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko ekainaren 19an

Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Goñerriko parke eolikoa abian ez jartzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Goñerriko parke eolikoa abian ez jartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko ekainaren 4ko 61 Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Goñerriko parke eolikoa abian ez jartzeari buruz. Hona Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1. 1999ko ekainaren 16an Energía Hidroeléctrica de Navarra, SA enpresak Nafarroako Energia Eolikoaren Produktzioaren Azpiegiturak Zehazteko Udalez gairako Eraginari buruzko Proiektu Sek-

toriala berrikusteko espedientea tramitatzeko aurkeztu zuen.

Orain berrikusteko dagoen Udalez gaindiko Eraginari buruzko Proiektu Sektorialak zenbati parke eoliko egitea aurreikusten zuen, eta horiek egiteko urteko programa bat ezartzen zuen. Delako programan, 2000 baino lehen eginen ziren parkeak eta geroko uzten zirenak bereizten ziren –azken horien artean Goñerrikoa–. Geroko uzten zirenak Udalez gaindiko Eraginari buruzko Proiektu Sektorialaren berrikuspenaren baitan geratuko ziren, eta, horrenbestez, aipatu berrikuspen espedientean sarturik geratu ziren. Espediente horrek zenbait leku baztertzen zituen, eta, halaber, beste batzuk proposatzen zituen: azken horien arteko bat Goñerrikoa da.

Departamentuaren txosteneko “Ingurumenari buruzko gogoetak” izenburupeko V. atalean –Lurraldearen Antolamenduko Batzordeak bere egin zuen txosten hori, Nafarroako Gobernuak Udalez gaindiko Eraginari buruzko Proiektu Sektorialaren berrikuspen espedientea tramitatzeko erabakia hartu aurretik–, ondokoa esaten da Goñerriko parkeari buruz:

GOÑERRIA

Parkeari buruzko proiektuarekin batera aurkezturiko Ingurumenaren gaineko Eraginaren Azterketaren (IEA) arabera, obrek eta instalazioek intereseko ondoko habitatetan eraginen dute: txilardi mediterraneoak, ipuru-eraketak, belar lehorren eraketa sasinaturalak eta substratu kalkareoen gaineko sasien fazieak eta pagadi xerotermofilo kaltzikolak. Hariteria elektrotik hurbil dagoen landaredia berezi mehatxatuari dagokionez: Orchis papilionazearen multzo txiki bat.

Azterlanak parke honen eragina bateragarri eta moderatuaren artean baloratzen du. Eraginik handiena paisaiaren gainekoa izanen da, moderatu eta larriaren artean sailkatua, harrera-gaitasun eskasa dela-eta, Urbasa-Andia eta Goñerria bertan daudelako eta parkearen presentziak ekarriko duen naturaltasun eta kalitate galerarengatik.

Parke eolikoa kokatuta dagoen lekuaren ezauzgarri naturalak (lehentasunezko habitaten ugaria dela eta, Europako Batasunaren ardurako leku gisa proposatu da 2000ko Natura Sarean) eta lekuak Urbasa-Andia Natur Parkearekin duen lotura kontuan harturik, parkearen ingurumen eraginaren balorazioa larri bezala sailkatu behar da.

Halaber, linea elektrikoaren eragina larritzat jo behar da, oso trazadura luzea baita eta portuaren topografiari jarraituz; portuan, gainera, eragina atzeraezina da. Gainera, paisaian duen eragina

kritikotzat jo behar da, begimenaren eta instalatzen den lekuaren ezaugarriak direla eta.

Adierazitakoak direla eta, parkearen eraginak handiak direla jo behar da.

Halaber, Departamentuaren eta Lurraldearen Antolamenduko Batzordearen txostenak ikusita, berrikuspen-espedientea onesteko Nafarroako Gobernuak erabakia hartu baino lehen –hartan, Goñerriko parkea baztertutakoen artean sartu zen–, ondokoa da Goñerriko Udalak aurkezturiko alegazioari emandako erantzuna:

Proposaturiko parke eolikoa Europako Batasunaren ardurako leku gisa proposaturiko eremu baten muga dago, 92/43 Zuzentarauak aplikatuta, dauzkan ingurumen balioengatik. Paisai balio handiko leku bat da, Urbasa-Andia natur parkearekin lotura handia duena.

Nazioan edo nazioartean eremu babestuetan edo haien inguruetan parke eolikoak egoteak ez du esan nahi Nafarroan lurralde-eredu edo lege-eredu bera aplikatu behar denik. Udalez gaindiko Eraginari buruzko Proiektu Sektorialari buruz eginiko azterlanaren ondorioz, lehentasuna eman zaie promotoreak aurkeztutakoen artean ingurumenean eragin gutxien duten kokapenei.

Enpresa promotoreak parke honen eraikuntzari buruz eginiko Ingurumenaren gaineko Eraginaren Azterketaren arabera (hariteria, sarbideak, plataformak, zangak eta abar), Habitategi buruzko 92/43 Zuzentaruaren sarturiko habitatak hartzen ditu, eta hariteria elektrotik hurbil Orchis papilionaceako populazio murriz bat dago; espezie hori, “habitataren aldarazpenen mendeko” gisa hartuta dago, eta ukituta gerta daiteke. Halaber, Ingurumenaren gaineko Eraginaren Azterketa horretan, eraginik handiena paisaiaren gainekoa izanen dela esaten da, moderatu eta larriaren artean sailkatua, harrera-gaitasun eskasa dela-eta, Urbasa-Andia eta Goñerri bertan daudelako eta parkearen presentziak ekarriko duen naturaltasun eta kalitate galerarengatik. Bada, ez dago kontraesan handirik promotorearen Ingurumenaren gaineko Eraginaren Azterketak dioenaren eta Departamentuak egindako txostenak dioenaren artean. Aintzat hartu behar da, halaber, topografikoki oso zailak eta ikusgarriak diren eremu b. batzuetatik doala hariteria elektriko luzeegiaren zati handi bat, kalitate handiko ingurune batean, gainera. Horrek berekin ekarriko du ingurumenaren gaineko eragina ezin bateragarritzat edo moderatutzat jotzea.

Pistak, indusketak eta abar egiteak okupazio iraunkor eta atzeraezina dakar, larriagoa okupatutako landarediaren edo habitataren balioa zenbat

eta handiagoa izan. Gogorarazi behar da ukitutako eremuak parkearen kokapenean bertan eta proposaturiko hariteria elektriko osoan zehar daudela; hori dela eta, eraginak uste baino zabalagoak dira. Bestalde, oneratzeko teknikak erabiltzeak ez du bermatzen eragina lehengoratzeko modukoa izanen denik (habitatak lehengoratzea), nahiz eta obretan bukaera-lan egokiak egitea lor daitekeen.

Azkenik, alegazio-egileak eginiko gainerako gogoetei dagokienez, aipatu behar da parkea jartzeak berekin ekarriko duela intereseko habitatak era iraunkorrean okupatzea; beraz, azaldutako argudio guztiak ikusita, aurrera eman nahi den jarduera balore naturalei eustearekin bateragarria ez dela esan behar da.

Aurreko ataletan egindako gogoeten ondorioz, parke hori ez onartzea proposatu behar da, bestelako planteamenduen arrazoizkotasuna aldera batea utzita, besteak beste alegazio-egilearen planteamendu ekonomiko-sozialak.

Horrenbestez, alegazioak ezesteko proposatzen da.

2. 1998ko Udalez gaindiko Eraginari buruzko Proiektu Sektorialean –aurreko puntuan adierazi bezala geroago berrikusi zen– Goñerriko parkea “proposatutakoa” hasierako kategoria zuen, ondoko ezaugarriekin: 24,6 Mw.-ko potentzia eta 41 aerogeneradore. Exekuzio programaren arabera,

parke hori 2000. urtea eta gero egitea aurreikusitakoen artean zegoen (zehazki, 2004. urterako zegoen aurreikusia), Udalez gaindiko Eraginari buruzko Proiektu Sektoriala berrikusi ondoren.

Enpresak eginiko berrikuspen-proposamenen, Goñerriko parkea agertzen zen, 36,96 Mw.-ko potentziarekin eta 56 aerogeneradorearekin. Haren konfigurazioa 1998ko Udalez gaindiko Eraginari buruzko Proiektu Sektorialekoaz nahikoa bestelakoa zen.

Berrikuspenean proposaturiko parke guztiak ezartzeko baldintzak xeheki aterturik, Goñerriko parkea baztertzea proposatu zen, lehenbiziko galderaren erantzunean transkribaturiko txostenetan erabilitako argudioei jarraituz.

3. Lehenbiziko galderaren erantzunean dago honen erantzuna; hartan, 1998ko Udalez gaindiko Eraginari buruzko Proiektu Sektorialaren berrikuspen espedientearen tramitazioan eginiko txostenetako Goñerriko parkeari buruzko zatiak transkribatu ditugu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko ekainaren 19an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

“Gestión Ambiental - Viveros y Repoblaciones” enpresak abeltzaintza-ustiategien gainean eginiko azterketa lanari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak “Gestión Ambiental - Viveros y Repoblaciones” enpresak abeltzaintza-ustiategien gainean eginiko azterketa lanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko ekainaren 4ko 61 Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/PNV Parlamentuko Taldeari atxikirik Eusko Alkartasunako foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak “Gestión Ambiental-Viveros y Repoblaciones” enpresak abeltzaintza-ustiategien gainean eginiko azterketa lanari buruzko galdera egin du. Hona Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen kontseilariaren erantzuna:

1. Dagoeneko hemen dugu “Gestión Ambiental - Viveros y Repoblaciones” enpresak abeltzaintza-ustiategien inbentarioa gaurkotzeko azterketa lana, ingurumen eskakizunak eta guzti.

Halere, beharrezkotzat jo dugu jarduteko eta irekitzeko lizentziei buruzko informazioa osatu eta zuzenean alderatzea udaletako artxiboetan dagoen informazioarekin.

Informazio hori toki entitateetan erregistratu eta gaurkotuta egon beharko litzateke, baina gehiena ez dago eskuragarri, eta hortaz, aurreikusita ez zegoen lan gehigarria egin behar izan da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko ekainaren 20an

Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Abeltzaintza babestu eta hobetzeko progamaren barreneko “Saneamendu kanpaina” kontusailaren betetze egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Abeltzaintza babestu eta hobetzeko progamaren barreneko “Saneamendu kanpaina” kontusailaren betetze egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko ekainaren 11ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/PNV Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak abeltzaintza babestu eta hobetzeko progamaren barreneko “Saneamendu kanpaina” kontusailaren betetze egoerari buruzko galdera egin du. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Honela bete da kontusail osoa:

73.512.000 pezeta, Abeltzaintzako Institutu Teknikoak tuberkulosi, bruzelosi, leukosi eta perineumoniaren aurkako saneamendu kanpainak

egiteko beharrezkoak diren azterketa lanak egin ditzan.

25.938.000 pezeta, Abeltzaintzako Institutu Teknikoak ASADS eta ADS Ribera 1 eta Ribera 2ko txerri-aziendaren derrigorrezko osasun programari buruzko azterketa lana eta antolakuntza egin ditzan.

550.000 pezetako diru laguntza Nafarroako Arrain-haztegiak ADSri, nekrosi hematopoietikoko

infekziosoa eta hemorragiko birikoa kontrolatzeko osasun programa taxutzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko ekainaren 18an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

“Nekazaritza ustiatzearen eraginkortasunaren hobekuntza” kontusailaren betetze egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak “Nekazaritza ustiatzearen eraginkortasunaren hobekuntza” kontusailaren betetze egoerari ri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko ekainaren 11ko 64 Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/PNV Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak abeltzaintza babestu eta hobetzeko programaren barreneko “Nekazaritza ustiatzearen eraginkortasunaren

hobekuntza” kontusailaren betetze egoerari buruzko galdera egin du. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Aurrekontu bateratuko –1.515.000.000 pezetara– 1.053.090.135 pezeta dago baimenduta une honetan.

Hori betetzeko, onuradunek inbertsioa justifikatzeko dokumentazioa aurkeztea besterik ez da falta.

Gure ustez, diru laguntzak ordaintzerakoan ez da atzerapenik gertatzen ari.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko ekainaren 18an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Norbanakoen osasun txartel kopuruari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Norbanakoen osasun txartel kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko ekainaren 4ko 61. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du 2001eko maiatzaren 24an norbanakoen osasun txartel kopuruari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Familiko mediku/mediku orokorren eta pediatren norbanakoen osasun txartelei (NOS) buruzko datuak 1. eranskin gisa doaz honekin batera, Nafarroako oinarrizko osasun eskualdeen (OOE) arabera sailkatuta eta kontuan hartuta kupo bakoitzean diren adin taldeak.

Donibaneko oinarrizko eskualdea kupoak berregituratzen ari da. 2001eko maiatzean familiko beste mediku da heldu da taldera eta hemendik gutxira beste bat heltzea aurreikusi da.

Une honetan, 2 osasun eskualdetan mantentzen da kupoko mediku orokorreko eredu zaharra: II. Zabalguneko OOE (kupoko 7 mediku orokor eta familiko 4 mediku) eta Donibanekoa (kupoko 2 mediku orokor eta familiko 11 mediku).

2. eranskinean jasotzen dira familiko mediku/mediku orokor eta pediatra bakoitzeko NOS errealean eta NOS aldatuen batez bestekoak, zentroen arabera.

Oinarrizko laguntzako mediku orokorra eta pediatra esleitzeko irizpideak honako hauek dira:

1. Oinarrizko laguntzako mediku orokorra eta mediku pediatra hautatzeko eskubidea arautzen duen 244/1994 Foru Dekretua aplikatzea.

2. Ereduaren araberako koefiziente zuzentzaile batzuk, ondoren laburtuta ageri direnak, aplikatzea. Helburua da kalitatezko laguntza bermatzea dauden mediku-kupoetara atxikitako gaixo guztiei:

- 5 zentro mota bereizi izan dira Nafarroan: hirikoa, hiri txikikoa, landagune handikoa, landagune txikikoa eta laguntza berezikoa.

- NOS erreala estandarizatzeari ekin diogu, ondoko aldagaiak aintzat hartuta: gaixo atxikien adinari lotutako lan zama, zerbitzua ematen duen zentro mota eta oinarrizko osasun eskualde bakoitzak bere gain hartzen dituen lekuz aldatuak. Kasu bakoitzari buruzko estandarizazio koefizienteak aplikatuz ateratzen denari deitzen diogu NOS aldatua.

Horren ondorioa da honako taula hau:

FAMILIKO MEDIKU/MEDIKU OROKOR BAKOITZEKO NOS ERREALEN ETA NOS ALDATUEN BATEZ BESTEKOAK, ZENTROEN ARABERA:
2001eko martxoaren 31ko datuak

Zentro mota	NOS erreal/ familiko medikuen batez bestekoa	NOS aldatu/ familiko medikuen batez bestekoa
Hirikoa	1.680	1.632
Hiri txikikoa	1.525	1.587
Landagune handikoa	1.126	1.231
Landagune txikikoa	888	1.002
Laguntza berezikoa	403	515

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko ekainaren 15ean

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

(Oharra: Aipatu eranskinak foru parlamentarien eskura daude Biltzarreko Zerbitzu Orokoretako bulegoetan).

Sendagaiak eta beste farmazia produktu batzuk erosteko jarraitzen diren prozedurei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak sendagaiak eta beste farmazia produktu batzuk erosteko jarraitzen diren prozedurei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko ekainaren 11ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitatu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak galdera egin du sendagaiak eta beste farmazia produktu batzuk erosteko jarraitzen diren prozedurei buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Galdera horri erantzuteko, farmazia-merkatuari buruzko hainbat gogoeta egin behar da ezer baino lehen, merkatu horren beraren mugen gaineko nolabaiteko argia ematearren. Halatan, kontuan hartu behar dira ondokoak:

Bat, patenteen zeregina; izan ere, Espainiako Ospitale-farmaziako Elkarteko lehendakari Eduardo Etxarri doktoreak orain dela gutxi aitortu zenez, farmazia-merkatuko –eta bereziki ospitaleko–gastuaren ehuneko 70 baino gehiago hartzen dute merkaturak diren edo lizentzia duten produktuek. Merkaturak denbora batez inolako lehiarik gabe arituko dela bermatzen dio ikertzaileari merkatuko patenteak.

Bi, prezioak Medikamentuei buruzko Legearen eta Batasuneko zuzentarauen zein beste erakunde-erabakien bidez ezartzen direnez, medikamentuak produktu arautuak dira. Interesgarria da administrazio zuzenbideko katedradun eta Espainiako Auzitegi Goreneko magistratu –eszedentzian– Francisco González Navarro jaunak “Espainiako Osasuna Maastrichteko European, 1993” liburuan arlo honetan egindako ekarpena. Hartan dioenez, Europako Batasuneko legerian hiru motatako mugak ezartzen dira farmazia-merkatuan jarduteko: prezioak ezartzei buruzkoak, medikamentua merkaturak jartzei buruzkoak eta medikamentuaren publizitateari buruzkoak.

Medikamentuen merkatuaren alderdirik interesgarrienetako bat da, printzipioz merkatu librearen muinaren aurkakoa dena, botere publikoek ezartzen dituztela prezioak. Egia da ez dagoela oso argi ea prezioak ezartze horrek erabat ezabatzen duen lehiari aritzeko aukera, eta horrenbestez sektoreko merkatu librea bera, ala alderantziz den, hau da, prezioak ezartzen direla hain zuzen ere lehiarik ez dagoelako edo lehia nahikorik ez dagoelako.

Gizakiak erabiltzekoak diren medikamentuen prezioen ezarpena arautzeko neurrien gardentasunari buruz eta gaixotasun aseguruaren gaineko sistema nazionaletan horiek sartzeari buruz Kontseiluaren 1998ko abenduaren 21eko 89/105/CEE Zuzentarauak darabiltzan zioen arabera, badirudi sektorean lehiarik ez dagoelako jotzen dela arautzeko bide hori baliatzera. Egileak aitortzen duenez:

“...estatu kideek, osasun publikoak produktu horietan gastatzen duena kontrolatzearen, ekonomia arloko neurriak hartu dituzte medikamentuen merkaturatzea dela-eta; neurri horien artean daude medikamentuen gaineko kontrol zuzen nahiz zeharkakoak eta gaixotasun aseguruaren gaineko sistema nazionalaren baitako produktuei buruzko mugak”.

Eta ondoren dio:

“...neurri horien helburu nagusia da osasun publikoa hobetzea eta medikamentuen hornikuntza egokia bermatzea arrazoizko prezioa ordainduta...”

Horren ondorioz, azken urteotan ospitaleetako farmazia zerbitzuek esku hartu dute, ospitaleko organo erabakitzaileekin batera, erabili beharreko medikamentuak hautatzeko; horretarako Kontseilu Terapeutikoa garatu dute, eta horren emaitzarik nabarmenena da osasun arloko profesionalak erantzukizunez onartu eta babesten dituztela erretatzeko askatasunaren gaineko murrizketak.

Ondorioz, farmazia-merkatuan 8.000tik gora produktu badago ere, ospitaleetan 1.300 inguru dago, akordio teknikoaren bidez onartzen baitira generikoak edo/eta ordezkotako terapeutikoak. Horrek, jakina, ondorio kliniko zein ekonomikoak ditu.

Kontseilu Terapeutikoaren erabaki horiek Formulario Terapeutikoko Sistemaren garapenean oinarritzen dira. Sistemak lau zutabe ditu:

a.- Farmakoak zertan erabiltzeko baimendu diren, horretan duten eraginkortasun eta segurtasunaren arabera sartzen dira.

b.- Analisi kliniko eta ekonomikoaren azterketa.

c.- Klinikoak erabili beharreko protokoloaren azterketa.

d.- Prozesu esplizitua.

Farmakoak Formulario Terapeutikoren filosofiari jarraikiz hautatzeko, badira hautapenean erabili beharreko irizpide edo/eta erabakitzeko algoritmoak. Ospitaletako organo erabakitzailuek hartutako erabakien ondorio dira ospitaletako sanitario guztien eskura egonen den Formulario edo Gida Terapeutikoa, bai eta ospitaleko beharri-terapeutikoei aurre egiteko farmazia zerbitzuak eskura zer medikamentu izanen dituen ere.

Prozedura horiek funtzionamendu arauetan daude bilduta, osasun administrazioak zein diren badaki eta zenbait alditan egin izan da horien gaineko auditoretza.

Horiek horrela, eta egindako galdera parlamentarioari erantzunez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko ospitaleetako urteko farmazia gastua honako hau izan da 1997tik 2000ra:

FARMAZIA GASTUA OSPITALEZ OSPITALE
(milioitan)

	Nafarroako Ospitalea	Bideko Ama Birjina Ospitalea	Tuterako Ospitalea	Lizarrako Ospitalea	Ubarmin Klinika
1997	981	733	189	75	31
1998	1139	694	238	91	36
1999	1364	799	263	96	34
2000	1636	760	356	88	29

Ospitaletako medikamentuen gastua dela-eta (2000ko abenduaren 1ean argitaratu eta 41 pro-

duktu jasotzen duen talde homogenea deitutakoan sartutakoak barne), ekonomiaren aldetik munta gutxikoa dela esan dezakegu, nahiz eta 41 produktu horietatik 32 erabili. Talde horren helburua ez da generikoak erabiltzea, baizik eta talde horretako medikamentuak generikoak baino garestiago ez ordaintzea. Halatan, hautapenean erabilitako irizpideetan, generikoaren prezioa da erreferentzia prezioa, eta ezin da erosi talde horretako medikamenturik generikoarentzat ezarritako prezioa baino garestiago.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko ospitaleak kudeatzeko kontratuetan farmazia gastuetarako ospitale bakoitzak zer aurrekontu kontsignazio duen jasotzen da. Hori bakoitzaren beharriaren arabera egiten da, ondokoei erreparatuta:

– Tratamendu berezietako gastua:

– Gaixo onkologikoetako gastua

– GIB gaixoetako gastua

– Hemofilikoentzako produktuetako gastua.

– PROSEREMeko gastua (alegia, ospitaleko farmazia zerbitzuak ingresaturik ez dauden gaixoei emandako medikamentuak).

– Farmaziako gainontzeko gastuak:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko ospitaletan ez da prezio bat baino gehiago ordaindu izan medikamentu, printzipio aktibo edo farmazia produktu beragatik; izan ere, farmazia zerbitzuak koordinatzeko prozedurak ditugu gaur egun, halakorik gerta ez dadin. Gainera, abian jarri ditugun kudeatzeko sistema informatikoen helburua da hain zuzen ere halakorik ez gertatzea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoei ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko ekainaren 1ean

Osasun kontseilaria, Santiago Cervera Soto

AUDENASAKo lan-gatazkei eta Estatuaren jabetzako zatiaren balizko pribatizazioari buruzko galdera

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak AUDENASAKo lan-gatazkei eta Estatuaren jabetzako zatiaren balizko pribatizazioari buruz egindako galderaren biderape-na onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamen-tuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko abenduaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezazkion.

Zenbait komunikabidek orain gutxi argitaratuta-ko informazioen arabera, Estatuaren jabetzako den Audenasako zatiaren pribatizatzea gerta dai-teke; horrek zerikusia izan dezake enpresako lan-gatazkaekin. Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak galdera hauei erantzun diezaien nahi dugu:

1.- Estatatuak Audenasako zatia pribatizatzeko asmoei buruz, zer informazio du Nafarroako Gobernuak?

2.- Pribatizatze hori gertatuz gero, zer iritziko lioke Nafarroako Gobernuak?

3.- Estatatuak Audenasako zatia pribatizatuko balu, aukera aprobetxatu eta Estatuaren zatian -edo hirugarren erosle pribatu baten zatian- duen mozkinetako partaidetza utzi eginen al luke Nafarroako Gobernuak?

4.- Audenasa eta enpresa-batzordearen artean mementuotan dagoen lan-gatazkari dagokionez, aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak Audena-sako administrazio-kontseiluan dituen ordezkarien inongo ekimenik enpresak sindikatuak mintzaide gisa ezagutu eta hori hitzarmena egoki negoziatze-ko oinarria izan dadin, eta lan-gatazka ekidin daitezen?

5.- Audenasak ez du hitzarmena negoziatu nahi. Hori horrela, nola edo hala langile gastuak handitu ez eta, enpresa pribatizatuz gero, erosle pribatu bati kargak arintzea izan daitekeela helbu-rua ez al du uste Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2001eko abenduaren 4an

Eleduna: Joxe Pernando Barrena Arza

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat..... 6.300 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 ».</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 ».</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
---	---